| **2013KO OTSAILAREN 26AN, LEHENENGO DEIALDIAN GETXOKO UDALBATZAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA.**<br><br>**============================**<br><br>**BERTARATUAK**<br><br>**LEHENDAKARIA** | **ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EN PRIMERA CONVOCATORIA POR EL PLENO DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO, EL DÍA 26 DE FEBRERO DE 2013.**<br><br>**============================**<br><br>**ASISTENTES**<br><br>**PRESIDENTE** |
|---|---|

Imanol Landa Jauregi jn.

| **ALKATEORDEAK** | **TENIENTES DE ALCALDE** |
|---|---|

Keltse Eiguren Alberdi (EAJ/PNV)
Koldo Iturbe Mendilibar (EAJ/PNV)
Joseba Arregi Martínez (EAJ/PNV)
Ana Helguera Líbano (EAJ/PNV)

| **ZINEGOTZIAK** | **C O N C E J A L E S** |
|---|---|

Elena Coria Yanguas (EAJ/PNV)
Alvaro González Pérez (EAJ/PNV)
Kepa Miñambres Llona (EAJ/PNV)
Josu Loroño Goienetxe (EAJ/PNV)
Ignacio Uriarte Gorostiaga (EAJ/PNV)
Marisa Arrue Bergareche (PP)
Eduardo Andrade Aurrecoechea (PP)
Jesús Toca Toña (PP)
Raquel González Díez-Andino (PP)
Iñaki Gamero Delgado (PP)
Javier Ruiz Egaña (PP)
Jone Ruiz De Eguilaz Salazar (PP)
Fco. Javier Elorza Hormaeche (PP)
Ana Basilio Carnicer (PP)
Maitane Nerekan Umaran (BILDU)
Bingen Mirena Saitua Iruretagoiena (BILDU)
Miren Arantza Gutiérrez Paz (BILDU)
Roberto Martin Prieto (BILDU)
Luis José Almansa Rubio (PSE-EE (PSOE))

Agustín Ruiz Estivariz (PSE-EE (PSOE))

| IDAZKARI NAGUSIA | SECRETARIO GENERAL |
|---|---|

Ignacio Javier Etxebarria Etxeita jn.

Getxoko Udalaren Udaletxeko Bilkura Aretoan eta Alkate-Lehendakaria Imanol Landa Jauregi jauna dela, egun horretako arratzaldeko bostetan, Udalaren Osoko Bilkura bildu da, lehen deialdian, ohiko bilkura egiteko. Bilkura horretara lehen adierazitako kideak joan dira eta baita kontu-hartzaile nagusia ere, Nuria Hernández Soto andrea.

En el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial de Getxo y bajo la presidencia del Sr. Alcalde-Presidente, don Imanol Landa Jauregi, se reunió a las diecisiete horas de este día el Pleno del Ayuntamiento, para celebrar sesión ordinaria, en primera convocatoria, con asistencia de los corporativos expresados al margen, más la Interventora general, Nuria Hernández Soto.

Alkate jaunak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita, bilkurari hasiera eman dio eta jarraian Deialdiko Aztergaien Zerrenda barruan jasota dauden gaiei heldu diete. Emaitza honakoa izan da:

El Sr. Alcalde, visto que existía número legal suficiente, declaró abierta la sesión, pasándose seguidamente a despachar los asuntos incluidos en el Orden del Día de la Convocatoria, con el resultado siguiente:

Gai-zerrendari heldu aurretik, Alkateak jakinatazi du BILDUk adierazi duela gai-zerrendako 24. puntuan jasotzen den mozioa kentzeko erabakia hartu duela, hortaz, puntu hori edukirik gabe gelditzen dela.

Previamente al tratamiento del orden del día, el Alcalde comunica que el grupo político BILDU ha manifestado su decisión de retirar la moción que figura como punto 24 del orden del día, por lo cual queda sin contenido dicho punto.

**16.- 2013KO URTARRILAREN 29AN GETXOKO UDALBALTZAK EGINDAKO AURREKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA ONESTEKO PROPOSAMENA.**

**16.- PROPUESTA DE APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL ACTA DE LA ANTERIOR SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 29 DE ENERO DE 2013.**

2013 urtarrilaren 29an Getxoko Udalbatzak egindako aurreko ohiko bilkuraren Akta onartu zen, ondorengo aldaketekin:

Se aprobó el Acta de la anterior sesión ordinaria celebrada por el Pleno del Ayuntamiento de Getxo el día 29 de enero de 2013 con las siguientes

modificaciones:

- Bigarren orrialdeko 1. puntuan honakoa gehitu zen:

- En el punto 1 página 2 se incorpora lo siguiente:

Maitane Nerekanek eskatu du, onartu aurretik, aktaren zirriborroari gehitzen zaizkion aldaketen berri ematea Osoko Bilkurari; akta hori aurrez bidaltzen zaie zinegotziei.

Maitane Nerekan solicita que las modificaciones que se incorporen al borrador de acta ,que es remitida con antelación a los corporativos, se de cuenta al Pleno antes de su aprobación.

Alkateak, Idazkari Orokorraren iritzia entzun ondoren, adierazi du aldaketak esanguratsuak direnean edo hitzen zentzua aldatzen dutenean, horrelaxe egingo dela.

El Alcalde, tras oir el parecer del Secretario General, indica que así constará cuando las modificaciones sean significativas o alteren el sentido de la intervención.

- 36. orrialdeko 11. puntuan, "Haren ustez, BILDU estrategia baino gehiago errealitatea da" dioen lekuan, zera jarri beharko luke: "BILDUren ustez, hura estrategia baino gehiago errealitatea da".

- En el punto 11 pàgina 36 dónde aparecía "Haren ustez, BILDU estrategia baino gehiago errealitatea da" debería poner "BILDUren ustez, hura estrategia baino gehiago errealitatea da".

**LEHENDAKARITZA ETA GIZARTE ZERBITZUAK.**

**PRESIDENCIA Y SERVICIOS SOCIALES.**

**17.- IGNACIO URIARTE GOROSTIAGA JAUNA EAJ-PNV ALDERDIAREN ALDETIK UDAL HONETAKO ZINEGOTZI KARGUDUN EZARTZEKO ETA INFORMAZIO BATZORDEETARA ETA AREZKARITZA BATZORDEETARA ATZIKITZEKO PROPOSAMENA.**

**17.- TOMA DE POSESIÓN DEL CARGO DE CONCEJAL DE DON IGNACIO URIARTE GOROSTIAGA PERTENECIENTE A EAJ-PNV Y ADSCRIPCIÓN A LAS COMISIONES INFORMATIVAS Y JUNTAS RECTORAS.**

Alkateak zinegotzientzako bakarrik den batzar-gelaren gunera pasatzeko dei egin dio Ignacio Uriarte Gorostiaga Jaunari. Idazkari Nagusiak jakinarazi du bete duela ondasun aitorpenarekin eta jardueren erregistroarekin, eta 1979ko apirilaren 5eko Errege Dekretuan aurreikusitako eta legez ezarritako hitzemate edo promesaren formula irakurri du; honelaxe dio:

El Alcalde llama al corporativo Ignacio Uriarte Gorostiaga a que pase a la zona de salón de sesiones reservada a los corporativos. Por parte del Secretario General se da cuenta de que ha cumplimentado la declaración de bienes, registro de actividades, procediéndose a dar lectura de la fórmula de juramento o promesa legalmente establecida, prevista en el Real Decreto de 5 de abril de 1.979, que es como sigue:

Zure kontzientzia eta ohorearen izenean, zin egin edo hitzematen duzu Getxoko Udaleko zinegotzi karguaren betebeharrak leial beteko dituzula Erregeari leialtasuna azalduz, eta Konstituzioa bete eta betearaziko duzula Estatuko oinarrizko arau gisa?

¿Juráis o prometéis por vuestra conciencia y honor cumplir fielmente las obligaciones del cargo de Concejal del Ayuntamiento de Getxo con lealtad al Rey, y guardar y hacer guardar la Constitución como norma fundamental del Estado?.

Aipatutako galderari honela erantzun dio:

A la citada pregunta respondió de la siguiente manera:

"Legeak horrela aginduta hitza ematen dut. "

"Legeak horrela aginduta hitza ematen dut. "

Alkateak ongietorria eman dio korporazio osoaren izenean eta zoriondu egin du izendapenagatik.

El Alcalde da la bienvenida en nombre de toda la corporación felicitándole por su nombramiento.

Jarraian, Lehendakaritza eta Gizarte Zerbitzuen Batzorde Informatzailearen proposamena bozkatu dute eta aho batez onartu dute:

A continuación se somete a votación la propuesta de la Comisión informativa de Presidencia y Servicios Sociales resultando aprobada por unanimidad:

1.- EAJ-PNVko Ignacio Uriarte Gorostiaga Jaunari Udal honetako Zinegotzi kargua ematea.

1.- Dar posesión del cargo de Concejal de este Ayuntamiento a don Ignacio Uriarte Gorostiaga perteneciente a EAJ-PNV.

2.- Ignacio Uriarte Gorostiaga Jauna ondorengo Batzorde Informatzaileetara eta Tokiko Organismo Autonomoetako Errektore Kontseiluetara atxikitzea, Itziar Epalza Urkiagaren ordezko gisa:

2.- Adscribir a don Ignacio Uriarte Gorostiaga a las siguientes Comisiones Informativas y Consejos Rectores de los Organismos Autónomos Locales en sustitución de doña Itziar Epalza Urkiaga:

- Hirigintza, Obra eta Zerbitzuak eta Ingurumeneko Batzorde Informatzailera: titular gisa.

- Comisión Informativa de Urbanismo, Obras y Servicios y Medio Ambiente: como titular.

- Ogasuna, Kontuak, Sustapen Ekonomikoa, Giza Baliabideak eta Gazteria eta Euskarako Batzorde Informatzaileetara: titular gisa.

- Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskara: como titular.

- Lehendakaritzako eta Gizarte Zerbitzuetako Batzorde Informatzaileetara: Josu Loroño

- Comisión Informativa de Presidencia y Servicios Sociales: como sustituto de don Josu Loroño.

Jaunaren ordezko gisa.

- Andrés Isasi Musika Eskola Tokiko Organismo Autonomoaren Errektore Batzordera: titular gisa.

- Junta Rectora O.A.L. Escuela de Música Andrés Isasi: como titular.

- Getxo Kirolak Tokiko Organismo Autonomoaren Errektore Batzordera: titular gisa.

- Junta Rectora O.A.L. Getxo Kirolak: como titular.

**18.- BERDINDAREA BERDINTASUNAREN ALDEKO ETA EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO EUSKAL UDALEN SAREAK PARATUTAKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA ONESTEKO PROPOSAMENA.**

**18.- PROPUESTA DE APROBACIÓN DE LA DECLARACIÓN INSTITUCIONAL ACORDADA POR LA RED DE MUNICIPIOS VASCOS POR LA IGUALDAD Y CONTRA LA VIOLENCIA BERDINSAREA.**

Proposamena irakurri ondoren, bozkatu egin da eta onartuta geratzen da honako emaitza hau lortzean: EAJ/PNV, PP, PSE-EE taldeen aldeko 21 boto eta BILDU taldearen 4 abstentzio-boto.

Tras dar lectura a la propuesta es sometida a votación resultando aprobada al obtener 21 votos a favor PNV, PP, PSE-EE, 4 abstenciones BILDU.

Ondorioz, Lehendakaritzaren eta Gizarte-Zerbitzuen informazio-batzordearen proposamenez honako hau adostu zen:

En consecuencia y a propuesta de la comisión infomativa de Presidencia y Servicios Sociales se acordó:

Adierazpen instituzionala onestea, BERDINSAREA berdintasunaren aldeko eta emakumeenganako bortizkeriaren aurkako euskal udalen sareak paratuta. Honetara dio hitzez hitz:

Aprobar la Declaración Institucional acordada por la Red de municipios vascos por la igualdad y contra la violencia BERDINSAREA, cuyo texto es del siguiente tenor literal:

MARTXOAK 8: EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

8 DE MARZO: DIA INTERNACIONAL DE LAS MUJERES

EMAKUMEAK UDALERRIAN POLITIKA EGITEN. HERRITARTASUN ESKUBIDEA

LAS MUJERES HACIENDO POLÍTICA EN EL MUNICIPIO. UN DERECHO DE CIUDADANÍA

Emakumeek herritartasun mailan erdietsi dituzten lorpenak eztabaidaezinak dira. Mugimendu sufragistari esker, emakumeek gaur egun argia iruditzen zaiguna lortu zuten: bozkatzeko eta hautetsiak izateko eskubidea.

Son indiscutibles los logros alcanzados por las mujeres en el ejercicio de su ciudadanía. Gracias al movimiento sufragista, las mujeres obtuvieron algo que hoy en día nos parece una obviedad: poder votar y ser votadas.

Hala ere, emakumeen parte-hartze politikoa ez da demokrazia ordezkatzailearen esparrura hautesle eta hautetsi gisa mugatu behar. Politika publikoetan eragiteko duen ahalmena ere kontuan hartu behar du, herritartasun aktiboaren bidez, demokrazia parte-hartzaileagoa eta genero berdintasunean oinarritutakoa eraikitzen laguntzeko.

Sin embargo, la participación política de las mujeres no debe limitarse al ámbito de la democracia representativa como electoras y como electas. Se tiene que referir también a su capacidad de influencia en las políticas públicas a través del ejercicio de una ciudadanía activa, ayudando así a construir una democracia más participativa y fundamentada en la equidad de género.

Dena dela, berdintasunaren zeruertzak urrun jarraituko du, politikan, orokorrean, eta tokiko politikan, bereziki, gizonak nagusitzen diren bitartean. Emakumeen hautagai kopuruak gora egin duen arren (berdintasunezko legealdietan orain gutxi hartutako berdintasun-neurrien eraginez), Euskadiko alkateen %22 emakumezkoak dira eta %78, berriz, gizonezkoak; horrek argi erakusten du esparru horretan kristalezko sabaia dagoela. Antzekoa gertatzen da zinegotziekin: ez soilik emakumezko zinegotzien kopuruak ez duelako %40,6 gainditzen, baizik eta, horrez gain, garrantzi sinboliko txikiagoko eta aurrekontu murritzagoko sailak hartzen dituztelako euren gain.

No obstante, el horizonte de la igualdad continuará lejano mientras siga existiendo un predominio masculino en la política en general y en la política local en particular. Pese al incremento notable de las candidaturas de mujeres - acelerado por la reciente adopción de medidas de paridad en las legislaciones de igualdad-, el hecho de que sólo el 22% de las alcaldías vascas estén ocupadas por mujeres frente a un 78% de hombres, pone claramente de manifiesto la existencia de un techo de cristal en este ámbito. Algo similar pasa con las concejalías, no sólo porque la proporción de concejalas no supera todavía el 40,6%, sino también porque asumen, en su mayoría áreas con menor peso simbólico y dotadas de menor presupuesto.

Egoera horren aurrean, premiazkoa da emakumezkoen presentzia eta eragina areagotzea udal politikako esparru guztietan. Alderdi politikoen nahiz sindikatu, elkarte eta eragina duten bestelako sare edo espazioen bitartez. Baina ez da soilik irrikatzen dugun %50era heltzearen kontua; zifretatik harago joan behar dugu.

Ante esta realidad, urge incrementar la presencia e influencia de las mujeres en todos los ámbitos de la política municipal. Tanto a través de los partidos políticos como de sindicatos, asociaciones y de otras redes o espacios de influencia. Pero no se trata simplemente de llegar a un ansiado 50%, hay que ir más allá de las cifras.

Beharrezkoa da tokiko politikan nagusi den eredua, gizonezkoen boterean eta lidergoan oinarritua, aztertu eta eztabaidatzea. Eredu politiko hori mantentzeak, gure gizartean herritarren erantzukizunen banaketa desorekatuarekin batera, oztopo handiak jartzen dizkie politikan sartu eta bertan aurrera egin nahi duten emakumezkoei eta, oro har, esparru publikoan parte hartu nahi duten emakumezkoei.

Horretarako, Getxoko Udalak zera bultzatuko du:

- Emakumezkoek herritartasun eskubidea osorik baliatzeko gainditu behar dituzten oztopo errealak aztertzea, etorkizunean berrikusteko.
- Emakumezkoentzako sareak eta espazio berriak sortzea, tokiko bizitzan duten parte-hartzea eta eragin-gaitasuna indartzeko estrategiak praktikan jartzeko.
- Lan bateratua egitea elkarteekin, emakumezkoek tokiko bizitza politikoan parte hartzea bultzatzeko.

Es necesario analizar y cuestionar el modelo imperante en el ejercicio de la política local, basado en el poder y el liderazgo masculinos. La permanencia de este modelo político, unido a un reparto no equitativo de las responsabilidades de cuidado en nuestra sociedad, plantea serios obstáculos para el acceso y el avance de las mujeres en la política y, en general, para su participación en el ámbito público.

Para ello, el Ayuntamiento de Getxo impulsará:

- El análisis, para su futura revisión, de los obstáculos reales a los que se enfrentan las mujeres para ejercer su derecho de ciudadanía de forma plena
- La creación de redes y nuevos espacios para las mujeres, que permitan poner en práctica estrategias para reforzar su participación y capacidad de influencia en la vida local.
- El trabajo conjunto con asociaciones para fortalecer la participación de las mujeres en la vida política local.

**19.- MENDEBALDEKO SAHARAREN EGOERARI BURUZ EUSKO LEGEBILTZARRAK 13-02-01EAN PARATUTAKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA ONESTEKO PROPOSAMENA.**

Proposamena irakurri ondoren, aho batez onartuta geratzen da.

Ondorioz, Lehendakaritzaren eta Gizarte-Zerbitzuen informazio-

**19.- PROPUESTA DE ADHESIÓN A LA DECLARACIÓN INSTITUCIONAL SOBRE LA SITUACIÓN EN EL SAHARA OCCIDENTAL APROBADA POR EL PARLAMENTO VASCO EN FECHA 7-02-13.**

Tras dar lectura a la propuesta es aprobada por unanimidad.

En consecuencia y a propuesta de la comisión infomativa de Presidencia y

batzordearen proposamenez honako hau adostu zen:

Servicios Sociales se acordó:

1.- Adierazpen instituzionalari atxikitzea, Mendebaldeko Saharako egoera dela eta Eusko Lege-biltzarrak 13-02-07an onetsita. Honetara dio hitzez hitz:

1.- Adherirse a la Declaración Institucional sobre la situación en el Sahara Occidental aprobada por el Parlamento Vasco en fecha 7-02-13, cuyo texto literalmente dice:

MENDEBALDEKO SAHARAKO EGOERARI BURUZKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

DECLARACIÓN INSTITUCIONAL SOBRE LA SITUACIÓN EN EL SAHARA OCCIDENTAL

X. legegintzaldiko legebiltzar-lanen hasiera une egokia da Legebiltzarraren Osoko Bilkurak Saharako herriarekin dituen konpromiso politiko eta humanitarioei berriro heltzeko, herri senidea den horrekiko betidanik sentitu duen hurbiltasun eta adiskidetasuna berriro adierazteko, eta Nazioarteko Zuzenbidea eta giza eskubideen errespetua eskatzen duten giltzarrietan sakontzeko.

El inicio de los trabajos parlamentarios de la X Legislatura es un buen momento para que el Pleno de la Cámara retome también sus compromisos políticos y humanitarios con el pueblo saharaui, reitere el afecto y la cercanía que siempre ha sentido por ese pueblo hermano, y profundice en las claves que demandan el cumplimiento del Derecho internacional y el respeto a los derechos humanos.

Eusko Legebiltzarrak hainbat adierazpen, mozio eta legez besteko proposamen onartu ditu nazioarteko legalitatearen alde argi eta garbi azalduz, eta, ondorioz, exijitu du saharar herriaren autodeterminazio-prozesua bukatzea erreferendum bat deituz, eta erreferendum horretan sartzea independentziaren aukera ere.Horrez gain, laguntza humanitarioa sustatu du, maila diferenteetan, Tindufeko iheslari-kanpamenduetarako.Eta azkenik, salatu egin du Mendebaldeko Saharan gertatzen zen eta oraindik ere gertatzen den giza eskubideen zapalketa.

El Parlamento Vasco en sucesivas declaraciones, mociones y proposiciones no de ley ha venido posicionándose de forma inequívoca a favor de la legalidad internacional, y, así, ha exigido la conclusión del proceso de autodeterminación del pueblo saharaui mediante la convocatoria de un referéndum en el que se incluya la opción de la independencia. También ha promovido la ayuda humanitaria a los refugiados en los campamentos de Tinduf a diferentes niveles. Y, por último, también ha denunciado la violación de los derechos humanos que se producía y se sigue produciendo en el Sahara Occidental.

Gaur egun, saharar herriaren bizi-baldintzek ez dute hobera egin, eta larriagotu ere egin dira laguntza

En la actualidad no solo no han mejorado las condiciones de vida del pueblo saharaui, sino que estas se han

humanitarioa ematen duten eta iheslariekin lankidetzan ari diren herrialdeek eta Europak bizi duten krisi ekonomikoko egoeraren ondorioz.Marokoko erregimenaren polizia-jazarpenak eta giza eskubideen urraketek oraindik ere badiraute Mendebaldeko Saharako lurralde okupatuetan, eta laster, gutxieneko bermerik gabeko epaiketa bat egingo da Rabaten "GdeimIzikeko 24ak" taldearen kontra, 2010eko azaroaren 8an Aaiuneko kanpamenduaren utzarazte eta desegite basatiaren ondoren atxilotutako sahararren kontra alegia.

visto agravadas con la situación de crisis económica que viven Europa y el conjunto de países que prestan su apoyo humanitario y cooperan con los refugiados. Persisten, por parte del régimen marroquí, el acoso policial y las vulneraciones de derechos civiles en los territorios ocupados del SO, y en la actualidad se va a desarrollar en Rabat un juicio, sin las mínimas garantías, contra "el grupo de los 24 de GdeimIzik", saharauis detenidos tras el brutal desalojo y desmantelamiento del campamento de El Aaiún ocurrido el 8 de noviembre de 2010.

Horregatik guztiagatik, Eusko Legebiltzarrak ondorengoa adierazi eta adosten du:

Por todo ello, el Parlamento Vasco manifiesta y acuerda lo siguiente:

1.Berretsi egiten ditu Saharako herriaren askatasunaren eta giza eskubideen babesaren alde onetsi dituen adierazpen instituzionalak eta gainerako erabakiak, eta Marokoko Erresumak okupatutako lurraldean bizi den saharar populazioaren eskubide zibil eta politikoak aldarrikatzen ditu.

1.Se ratifica en cuantas declaraciones institucionales y demás acuerdos ha aprobado en favor de la libertad del pueblo saharaui y de la defensa de los derechos humanos, y reivindica los derechos civiles y políticos para la población saharaui en los territorios ocupados por el Reino de Marruecos.

2.Marokoko agintariei eskatzen die eten dezatela giza eskubideen aldeko ekintzaileen kontrako jazarpena Saharako Mendebaldean, eta aska ditzatela Marokon eta Mendebaldeko Saharan kartzelatutako preso politikoak.

2.Insta a las autoridades marroquíes a que cesen las persecuciones de los activistas de derechos humanos en el Sahara Occidental y a liberar a los presos políticos encarcelados en las prisiones de Marruecos y en las del Sahara Occidental.

3. Berretsi egiten du saharar herriaren autodeterminazio-eskubidea Nazio Batuen Erakundeak adostutako eran.

3.Reafirma el derecho de autodeterminación del pueblo saharaui en los términos acordados por la ONU.

4.Espainiako Gobernuari eskatzen dio bete dezala dagokion papera eta babestu

4.Solicita al Gobierno de España que tome el papel que le corresponde y apoye, tanto en su propia actuación

dezala, bere jardunean eta Europar Batasunean, gatazka konpontzeko prozesua Nazio Batuen ebazpenen arabera.

como en las del marco de la Unión Europea, el proceso de resolución del conflicto conforme a las resoluciones de Naciones Unidas.

5.Herritarrak eta erakundeak animatu egiten ditu politikaren esparrutik eta esparru humanitariotik saharar herriari babesa ematera eta harekin lankidetzan aritzera, eta orobat salatzera, nazioarteko krisi ekonomikoko egoerak larriagotu duen saharar herriaren babesgabetasun- eta ahanztura-egoera.

5.Anima a la ciudadanía y a las instituciones a apoyar y cooperar desde el ámbito político y humanitario con el pueblo saharaui, y a denunciar la situación de olvido y desamparo en la que se encuentra, agravada esta por la situación de crisis económica internacional.

6.Berriro ere adierazten du aintzatetsi egiten duela Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoaren gobernu legitimoa eta babestu egiten dituela Fronte Polisarioko kideak, eta bereziki, Euskal Autonomia Erkidegoak dituen ordezkariak; eta, saharar herria babesten duten elkarteekin batera, kausa haren aliatu leialaren paperari eusteko konpromisoa hartzen du, hogei urtetik gorako elkartasunarekin eta legebiltzar-lanarekin egin izan duen bezala.

6.Reitera su reconocimiento al legítimo gobierno de la República Árabe Saharaui Democrática y su apoyo a los miembros del Frente Polisario y en especial a sus representantes en la Comunidad Autónoma vasca, y, junto con las asociaciones de apoyo al pueblo saharaui, se compromete a mantener el papel de fiel aliado de la causa como lo ha venido haciendo en los más de veinte años de trabajo parlamentario y de solidaridad.

7.Konpromisoa hartzen du, "Bakea eta Askatasuna Saharar Herriarentzat" izeneko Legebiltzarreko taldeartekoaren eta Giza Eskubideen Batzordearen bitartez, inguru hartako elkartasun-jarduerak eta presentzia instituzionala mantentzeko, bai eta eskatzen zaizkion nazioarteko behatzaile-eginkizunak betetzeko ere.

7.Se compromete a mantener, a través del Intergrupo Parlamentario "Paz y Libertad para el pueblo saharaui" y a través de la Comisión de Derechos Humanos, las actividades de solidaridad y presencia institucional en la zona así como las funciones de observadores internacionales para las que sea requerido.

2.- Erabaki honen berri EUSKAL FONDOAri ematea.

2.- Dar traslado del presente acuerdo a EUSKAL FONDOA.

**MOZIOAK ETA INTERPELAZIOAK**

**MOCIONES E INTERPELACIONES**

**20.- PP ALDERDIAREN UDAL TALDE POLITIKOAK PARATUTAKO**

**20.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL POPULAR**

**MOZIOA: ASUAKO ERREPIDETIK GOBELA KIROLDEGIRA BITARTEAN GOBELA ERREKA UBIDERATZEKO PROIEKTUA.**

Iñaki Gamero jaunak mozioa irakurtzen du, zeinak, honela dioen:

ALDERDI POPULARRA talde politikoak Romoko auzokideen elkartearekin elkarrizketak izan ostean, haiek Gobela ibaia Avanzadako Errepidetik Gobelako polikiroldegia bitarteko bide-gunean bideratzeko proiektuari dagokionez egindako aldarrikapen bati babesa eman eta hura Osoko Bilkura honi helarazi nahi dio.

**I.** Adierazi Romoko auzokideen elkarteak Getxoko udalerrian uholdeak ekiditeko beharrezkoak diren jarduera orori beren babesa ematen dietela.

**II.** Jakin badakite jarduera horietako bat Gobela ibaiaren ibilgua zabaltzea eta azaleratzea dela Avanzadaren Errepidetik Gobelako polikiroldegia bitartean, hura Europako arauzko eskakizunetara egokituz.

**III.** Planteatutako proiektua ikusirik, arauzko eskakizun horiek modulagarriak direla dirudite aplikatzen diren zonaren arabera; bestela, ez da ulertzen Plentzia Hiribildutik Gobelako metroaren geltokiaren sarbidera bitarteko bide-gunea estalirik eta gainerako bide-guneak estali gabe geratzea.

**S/PROYECTO DE ENCAUZAMIENTO DEL RÍO GOBELA EN EL TRAMO CARRETERA DE LA AVANZADA-POLIDEPORTIVO GOBELA.**

Iñaki Gamero da lectura a la moción que indica lo siguiente:

La formación política PARTIDO POPULAR tras conversaciones recientemente mantenidas con la asociación de vecinos de Romo desea respaldar y trasladar a este pleno alguna de las reivindicaciones formuladas por ésta, en relación al proyecto de encauzamiento del Rio Gobela en el tramo carretera de La Avanzada-polideportivo Gobela.

**I.** Manifestar que la asociación de vecinos de Romo apoya cuantas actuaciones fueran precisas para evitar inundaciones en el municipio de Getxo.

**II.** Conocido es que una de esas actuaciones consiste en ampliar y descubrir el cauce del rio Gobela desde la carreta de la Avanzada hasta el polideportivo Gobela ajustándose a exigencias normativas europeas.

**III.** A la vista del proyecto planteado, esas exigencias normativas parecen modulables en función de la zona en que se aplican, de lo contrario no se entiende que el tramo Villa de Plencia-vial de acceso a estación metro Gobela pueda quedar cubierto y los tramos restantes no.

**IV.** Proiektuan aurreikusitako bidegunean (Gobelako metroaren geltokiaren sarbidea - Gobelako polikiroldegia) ibaia estali gabe uztearen alderdi positiboak ez dira inondik inora sumatzen, alderantziz baizik, mota desberdinetako eragozpenen sortzaile dirudite:

**1.a.-** Errekagana 9, 11, 13 eta 15eko etxebizitza-multzoa Gobela ibaiaren 11 metroko LUBAKIAREN eta Metroaren HORMATZARRAREN artean sartzea, etxebizitza horietara larrialdi-zerbitzuen (anbulantziak, su-hiltzaileak eta abar) sarrera oztopatuz.

**2.a.-** Egoera osasungaitzak sortzea, arratoien, eltxoen eta, usainen agerpena erraztuz eta, baita, ibaiaren ibilguan amaitu dezaketen zabor-gordailuen agerpena ere.

**3.a.-** Zuhaiztien eta lorategien zona kentzea, ibaiak ezkutuan jarraituz gero bertan haurrentzako jolasak, bankuak eta abar jarri ahal izango lirateke, gaur egungo Arenas Club parkearen jarraipena ahalbidetzeaz gain.

**4.a.-** Areeta / Romoko bizilagunen artean ezinegona eragitea. Orain arte, Valdeseko hustubideak 5-6 metroko ibilgua duen ibaiaren hustubidea bermatu du. Eraginkortasun berdina edukitzen jarraituko al du ibilgua aurreikusi bezala 11 metrokoa izatera iristen denean? Horrela izan ezean zeintzuk lirateke Areeta / Romorako ondorioak?

Arestian aipaturiko planteamenduetan oinarrituz, udalbatzari eskatzen diogu:

**1.a.-** Behin dagozkion zabaltze-obrak gauzatutakoan, ibaia berriz estaltzea, jatorrizko egoerara leheneratuz.

**IV.** Los aspectos positivos de dejar el rio descubierto en el tramo contemplado en el proyecto (acceso metro Gobela-polideportivo Gobela) no se perciben por ninguna parte, más bien al contrario, se antojan generadores de molestias de diversa índole:

**1º** Confinar al grupo de viviendas Erekagane 9, 11, 13 y 15 entre la TRINCHERA de 11 mts del rio Gobela y el PAREDON del Metro, obstaculizando el accesos de servicios de urgencia (ambulancia, bomberos…) a las viviendas señaladas.

**2º** Generar situaciones de insalubridad favoreciendo la aparición de ratas, mosquitos, olores e incluso depósitos de basura que podrían acabar en el cauce del rio.

**3º** Eliminación de la zona arbolada y ajardinada que de mantenerse cubierta podría implementarse con juegos infantiles, bancos etc., además de permitir la continuidad debida del actual parque Arenas Club.

**4º** Generar inquietud entre los vecinos de Areeta-Romo. Hasta ahora el aliviadero de Valdés ha garantizado la evacuación de un río cuyo cauce es de 5-6mts. ¿Seguirá mostrando la misma eficacia cuando este cauce alcance los 11mts previstos?, de no ser así, cuáles serían las consecuencias para Areeta-Romo?.

Basándonos en los planteamientos expuestos anteriormente pedimos a la corporación municipal:

**1º** Una vez ejecutadas las obras de ensanchamiento oportunas proceda al recubrimiento del río devolviéndolo a la

situación original.

**2.a.-** Ibaiaren ibilgua zabaldu izana eta Valdeseko hustubidearen neurriak etorkizunean izan daitezkeen uholdeen aurrean Areeta / Romorako berme izango direla argi eta garbi uztea.

**2º** Deje bien claro que el ensanchamiento del cauce del rio y las dimensiones del aliviadero de Valdés son garantía para Areeta-Romo ante futuras crecidas del rio.

Talde Popularrak auzokideen erkidegoak Osoko Bilkurari eta Gobernu-Taldeari helarazi nahi dioena transmititzen duela adierazten du eta Talde Popularraren asmoa ez dela guztiok partekatzen dugun gai horri dagokionez, alegia, Gobela ibaiko obrak gauzatzea, debate politikorik sortzea. Auzotar horiekin ahalegin bat egin behar dela deritzo eta mozioa ez litzatekeela beharrezkoa uholdeen batzordean parte hartzen utzi izan balitzaie, beraiek eskatu duten gisan.

Manifiesta que el Grupo Popular transmite lo que la asociación de vecinos quiere trasladar al Pleno y al Equipo de Gobierno y no es intención del Grupo Popular hacer debate político acerca de un tema que es compartido por todos como es el de ejecutar las obras del río Gobela. Estima que debe hacerse un esfuerzo con estos vecinos e indica que no sería necesaria la moción si se les dejara participar en la Comisión de inundaciones, tal y como han solicitado.

Luis Almansa jaunak bere esku-hartzea Ignacio Uriarte udal-batzarkide berriari ongietorria emanez hasten du. Mozioari dagokionez, kontraesankorra iruditzen zaio talde politiko batek auzotarren eskaera bat mozio bihurtzea eta, era berean, ez duela debaterik sortu nahi adieraztea. Talde Popularrari gogorarazten dio 2009ko urtarrilaren 30eko Osoko Bilkuran Gobela Ibaiaren hasierako ibilbidea aho batez onartu zela, URAri hura aldatzeko eskatuz bide-gune zehatz batean estaldura eskaera eginez. Talde Popularraren mozioa gai honetan ere aurretik lortutako adostasunetatik aldentzen ari dela iruditzen zaio eta horrelako idatzia aurkezteari arduragabekeria deritzo, helarazten dutena bere osotasunean ez dela posible jakinda, ezagutzen duten nahitaez bete beharreko legezko araudia baitago eta, bestetik, segurtasun-arrazoiengatik ere ezinezkoa delako, uholdeen batzordeak azaldu duenaren arabera. Hori oinarri harturik, Talde Sozialistak kontrako botoa emango du, erantzukizun-irizpideengatik eta auzotarrei

Luis Almansa comienza su intervención dando la bienvenida al nuevo corporativo Ignacio Uriarte. Respecto a la moción le parece contradictorio que un grupo político transforme una petición vecinal en moción y a la vez manifieste que no quiere generar un debate. Recuerda al Grupo Popular que en el Pleno de 30 de enero de 2009 por unanimidad se aprobó el trazado inicial de las obras del río Gobela, pidiendo a URA la modificación del mismo con la petición de cobertura de un tramo concreto. Estima que con la moción el Grupo Popular se está desmarcando también en éste tema de consensos previos existentes y le parece irresponsable presentar un escrito de este tipo sabiendo que lo que trasladan no es posible en su totalidad debido a la normativa legal de obligatorio cumplimiento que ya conocen y tampoco por razones de seguridad como se ha explicado en la Comisión de inundaciones. En base a ello, el Grupo Socialista va a votar en contra por criterios de responsabilidad y por dar seguridad a los

segurtasuna emateko.

Joseba Arregi jaunak adierazten du Talde Popularrak badakiela eskatzen duena ez dela udal-eskumenekoa, ibilguak estaltzea erabakia Eusko Jaurlaritzaren eskuduntza baita. Talde Popularrari gogorarazten dio proiektu hau gainerako talde politikoekin batera onartu zuela 2009an, URAk aurkeztutako hasierako proiektuari aldaketa bat sartuz, alegia, Errekagana kaleko bide-gune bat estaltzea. Egungo datan, proiektuaren bi atal jada egikaritu dira eta Talde Popularrak zona gehiago estaltzeko egindako alegazio batzuen aurrean URAk ezezkoa eman zuen segurtasun-irizpideetan eta aplikagarri diren ingurumen-printzipioetan oinarrituz, izan ere, ibaien estalitako bide-guneek arriskua sortzen dute eurite handien kasuan. URAren arrazoietatik urruntzeak ez duela inolako zentzurik iruditzen zaio, beraz, mozioari ez diote beren babesa emango. Valdeseko Hustubideak zabaldutako ibilguak garraia dezakeen ura hartzeko neurriak ezarriak ditu. Amaitzen du adieraziz, Gobernu-Taldea eragindako zonako bizilagunen ordezkariekin bildu dela eta beraiekin eta URArekin lan egiteko konpromisoa hartu dutela diseinua ahal den neurrian hobetzeko.

Arantza Gutierrez andreak adierazten du uholdeena arazo larria dela Getxon eta ez dela bizilagun erantzukizuna, baizik eta, egikaritu den hirigintzarena dela. 2008ko uholde handien ondoren bizilagunen parte-hartzearekin uholdeetako batzorde berezi bat eratu zela gogorarazten du eta batzorde horren lanaren emaitza dela URAren proiektua. BILDU taldeak ezin izan zuela batzorde horretan hasieratik parte hartu adierazten du, baina, beranduago bada ere, batzordera gehitu zela eta bertan adostasunez onartutako akordioak beren gain hartu dituztela. Errekaganako bizilagunen kezka ulertzen duela dio eta irtenbideak bilatu behar direla uste du,

vecinos.

Joseba Arregi manifiesta que el Grupo Popular sabe que lo que pide no es de competencia municipal ya que determinar la cubrición de los cauces es competencia del Gobierno Vasco. Recuerda al Grupo Popular que aprobó con el resto de los grupos políticos en el año 2009 este proyecto incorporando una modificación al inicialmente presentado por URA que consistió en cubrir un tramo en la calle Errekagane. A la fecha actual se han ejecutado dos partes del proyecto y ante unas nuevas alegaciones del Grupo Popular para cubrir más zonas URA ya razonó su negativa en base a criterios de seguridad y principios ambientales de aplicación, manifestando que los tramos cubiertos de ríos generan riesgo en caso de fuertes lluvias. Opina que no tiene sentido alejarse de las razones de URA por lo cual no apoyarán la moción. Manifiesta también que el aliviadero de Valdés está dimensionado para asumir el agua que pueda trasladar el cauce ampliado. Finaliza indicando que el Equipo de Gobierno se ha reunido con representantes de la zona afectada y se han comprometido en trabajar con ellos y con URA para mejorar el diseño en la medida de lo posible.

Arantza Gutiérrez indica que las inundaciones son un problema grave en Getxo y no son de responsabilidad de los vecinos sino que se deben al urbanismo que se ha ejecutado. Recuerda que en el año 2008 tras una fuerte inundación se creo una Comisión especial de inundaciones con participación vecinal y del trabajo de esa Comisión deriva el proyecto de URA. Manifiesta que BILDU no pudo participar al inicio de la Comisión pero posteriormente se ha incorporado y ha asumido los acuerdos que se han aprobado por consenso en la misma. Entiende las preocupaciones de los vecinos de Errekagane y cree que hay que buscar

baina horretarako foroa uholdeen batzordea da; URAk dagozkion azalpenak emango ditu eta proiektua hobetzeko aukera baloratu ahal izango da bertan. Bizilagunek ibilguari estaldura partzial bat bai baina osoa ezin zaiola eman ezin ulertu izana onartuz amaitzen du, baina bere ustez informazio-batzordean horretarako azalpen egokiak eman daitezke.

soluciones, pero el foro es la Comisión de inundaciones dónde URA dará las explicaciones correspondientes y se podrá valorar la posibilidad de mejorar el proyecto. Finaliza reconociendo que los vecinos no entienden que se pueda dar una cobertura parcial del cauce y no total pero cree que en la Comisión informativa se pueden dar las oportunas explicaciones.

Iñaki Gamero jaunak Talde Sozialistak Osoko Bilkurara auzotarren eskabideak ekartzea deslegitimatu izana kritikatzen du. Horren garrantzitsuak diren obren eragina jasoko duten auzotarrenganako justiziagatik eta elkartasunagatik mozioa ekartzera behartuta sentitzen direla adierazten du berriro eta uholdeen batzordean hitza edukiko balute arazoa konponduko litzatekeela uste du. Estali edo ez erabakitzea URAren eskuduntza dela aitortzen du, baina Udalak eragin handia izan dezakeela, lehen ere behin baino gehiagotan frogatuta geratu den gisan, esate baterako, obra egiteko makinaria non kokatuko den erabakitzerakoan. 2009ko Osoko Bilkuran Talde Popularraren aldeko boto batekin aurreproiektu bat onartu zela gogorarazten du, baina une horretan, jada, zein arazok kezkatzen zituzten adierazi zuten eta kezka horiek bat datoz auzotarren erreklamazioekin.

Iñaki Gamero critica que el Grupo Socialista deslegitime que un partido político traiga al Pleno peticiones de los vecinos. Insisten en que se ven obligados a traer la moción por justicia y solidaridad con los vecinos que van a ser afectados con unas obras importantes y cree que el problema se solucionaría si se les diera voz en la Comisión de inundaciones. Reconoce que la competencia para determinar la cubrición es de URA, pero el Ayuntamiento puede incidir de manera importante, como se ha demostrado por ejemplo, a la hora de decidir dónde se ubica el parque de maquinaria para la obra. Recuerda que en el pleno de 2009 se aprobó un anteproyecto con el voto a favor del Grupo Popular pero ya en ese momento indicaron los problemas que les preocupaban que coinciden con las reclamaciones vecinales.

Joseba Arregi jaunak ñabardura bat egiten du adieraziz, 2009an proiektu bat onartu zela ibilbideekin eta atalekin eta Talde Popularra iaz abstenitu egin zela Errekaganako egikaritze-proiektua onartzerakoan. Berriro azpimarratzen du mozioak estaltzea planteatzen duela udalaren eskuduntza ez dela jakin arren. Amaitzen du adieraziz ez duela inolako eragozpenik elkarteak, horrela eratuta badago, uholdeen batzorde berezian parte har dezan.

Joseba Arregi matiza que lo que se aprobó en el 2009 fue un proyecto con trazados y secciones y que el Grupo Popular sí se abstuvo en el pasado año a la hora de aprobar el proyecto de ejecución de Errekagane. Insiste en que la moción plantea la cubrición cuando saben que no es de competencia municipal. Finaliza indicando que no tiene inconveniente en que la asociación, si como tal está constituida, participe en la Comisión especial de inundaciones.

Luis Almansa jaunak adierazten du ez

Luis Almansa manifiesta que no ha

duela desligitimizatu auzotarrek talde politikoen bitartez mozioak aurkezteko aukera izatea, baizik eta kritikatu duena Talde Popularrak ez diola debate politikoari bide eman nahi esan eta, gero, mozioa aurkeztea dela. Talde Popularrak ibilbidearen eta atalen proiektuari aldeko botoa ema ziela eta dagokion araudia eta segurtasun-irizpideak errespetatuz zona estaltzeko eskaera egin zuela gogorarazten du. Talde Popularra kritikatzen du bakoitzari entzun nahi duena esateagatik, hori ez baita politikoki arduratsua, baizik eta, populismoa egitea da. Amaitzen du gogoraraziz, Talde Popularrak bere egunean Gobela ibaia Romoko zona handietan azaleratzea eskatu zuela eta, orain aurkakoa eskatzen ari dela.

deslegitimado que los vecinos puedan presentar mociones a través de los grupos políticos sino lo que ha criticado es que el Grupo Popular manifieste que no quiere debate político y presente una moción. Recuerda que el Grupo Popular dio el voto a favor del trazado y a las secciones y a la petición de una zona cubierta respetando las normativa correspondiente y los criterios de seguridad. Critica al Grupo Popular por decir a cada uno lo qué quiere escuchar y eso no es políticamente responsable sino que es hacer populismo. Finaliza recordando que en su día el Grupo Popular pidió descubrir el río Gobela en grandes zonas de Romo y ahora pide lo contrario.

Arantza Gutierrez andreak BILDU taldearen izenean uholdeen batzordea lehenbailehen deitzea eskatzen du, eztabaidatu beharreko gai ugari baitago, eta, bertan, Errekaganako auzotarrei entzun dakiela ere eskatzen du.

Arantza Gutiérrez pide en nombre de BILDU que se convoque cuanto antes la Comisión de inundaciones ya que existen bastantes cuestiones a debatir y que en la misma se escuche a los vecinos de Errekagane.

Iñaki Gamero jaunak adierazten du Talde Popularrak gauzak erakundeetan aurkezten dituela eta proiektuari alegazioak egin zizkiotela onartu zenean bai Eusko Jaurlaritzaren aurrean bai Udalaren aurrean. Proiektua 2012an onartu zenean, abstenitu egin zirela gogorarazten du alegazioak ez zirelako aztertu eta mozioan aurkezten dutena alegazioetan jasota zegoelako. Guztiei auzotarren eskabideei erantzuteko konpromiso politikoa eskatuz amaitzen du.

Iñaki Gamero manifiesta que el Grupo Popular plantea las cosas en las instituciones que corresponden e indica que presentaron alegaciones al proyecto cuando se aprobó y presentaron las alegaciones tanto en el Gobierno Vasco como en el Ayuntamiento. Recuerda que cuando se aprobó el proyecto en el año 2012 se abstuvieron porque no se estudiaron las alegaciones y lo que plantean en la moción se recogía en las alegaciones. Finaliza pidiendo un compromiso político por parte de todos para atender las peticiones vecinales.

Luis Almansa jaunak Errekaganako eragindako auzotarrek uholdeen batzorde berezian parte hartzeko eskabideari atxikitzen zaiola adierazten du. Ez dela egia guztia esaten ari azpimarratzen du, izan ere, gauza jakina da segurtasun-

Luis Almansa manifiesta su adhesión a la petición que el colectivo de afectados de Errekagane participe en la Comisión especial de inundaciones. Insiste en que no se está diciendo toda la verdad ya que se sabe que por normativa de seguridad

araudiaren arabera ezinezkoa dela ibaiaren ibilgu osoa estaltzea eta kontrakoa babestea arduragabekeria litzateke; bestetik, ulertzen du ezinezkoa den gauzengan ez dela itxaropenik sortu behar.

es imposible cubrir todo el cauce y apoyar lo contrario es irresponsable, como también entiende que no deben generarse esperanzas de cosas imposibles.

Joseba Arregi jaunak behin eta berriz azpimarratzen du 2009an onartutako proiektuan Errekaganako atalak eta estaldurak jada adierazten zirela. Elkartea eratuta badago, hark uholdeen batzorde berezian parte hartu dezan inolako arazorik ez duela berresten du. Amaitzen du adieraziz, Gobernu-Taldea URAko zuzendaritza berriarekin harremanetan jarri dela, baina biltzeko datak doitu zain daudela.

Joseba Arregi insiste en que el proyecto aprobado en 2009 indicaba ya las secciones y coberturas de Errekagane. Se ratifica en que no tiene ningún problema en que si la asociación está constituida participe en la Comisión especial de inundaciones. Finaliza indicando que el Equipo de Gobierno ha contactado con la nueva dirección de URA para invitarla a que sigan participando en la Comisión pero que están a la espera de poder ajustar fechas para la reunión.

